

Utopia zikinen beharraz



BEÑAT IRASUEGI IBARRA
KOOPERATIBISTA

Europako Parlamenturako hauteskondeen bihamunean idazten ditut lerro hauek, garai ilunak, Internazional Erreakzionarioaren garaipena europar legebiltzarrerako hauteskondeetan. Lehenagotik ere bazetorren bolada, eta bizi dugun fase kontserbadorearen berrespena da, baina beldurra sortzen du. Izan ere, neoliberalismoak lortu duen garaipen handienetakoa da kolektiboki etorkizun bizigarriez pentsatzeko gaitasunaren galera. Hutsune horretan topatzen du eskuin muturrak bere tokia, etorkizun desiragarririk gabeko orainaldi ziurgabea.

Egoera horretan nator utopiez eta horien ezinbesteko beharraz solastatzera. Etorkizun desiragarri, bizigarri eta emantzipatzaileak pentsatzea, gure eguneroko egitekoetara ekartzera. Seguruenik utopiez modu estrategikoan hitz egin nahi dugun gutxiespenak kinto berriak jasoko dituen momentuan. Utopiaren forma berriak aurkitu behar ditugu, irla bat izanez ezagutu bagenuen ere, ondoren, ilargi, planeta, izar gorri, estatu, komunitate trinko eta bestelako formak izan ditu, eta gaur

Neoliberalismoak
lortu duen garaipen
handienetakoa da
kolektiboki etorkizun
bizigarriez pentsatzeko
gaitasunaren galera

egunean bidea egiten lagunduko diguten ideia eta iruditegien forma hartu beharko dute.

Utopia zikinak, lokaztuak, anitzak, izango dira seguruenik aurrerantzean eraiki beharko ditugunak, zeren ideia utopiko aurreratu eta garatuak landuko baditugu, ikuspegi integrala izan beharko dute, bizitza bizigarriak erdigunean izango dituztenak, eta bizitzaren posibilitate guztiak aztertu eta garatzeko

aukera emango dutenak, lurretik, lokatetik sortuak, beraz. Ikuspegi trantsizionala garatu beharko dugu, energia, elikadura, bizi-espazioak, aisialdia, zaintza, teknologia, lana, eta bizitza posible egiten dituzten eremuen burujabetza kolektiboak pentsatzeko, gure gorputz eta harremanen eraldaketa, eredu zis, patriarkal eta antropozentrikotik harago gauzatzeko. Irudimen transhumanista, material eta bizigarria beharko dugu.

Utopia zikinak gure egunerokoan errealtate izan dira beti, eta aurretik ere etorkizunean bizi izan den jendeaz ikasi behar dugu, guretzat utopikoak liratekeen bizitza, praktika eta proiektuak izan zirelako, eta gaur egun ere badirelako. Agian zabaltzeko eraldatu behar direnak, baina zikinak izanik ere bidea erakusten digutenak. Garai ilunotan, esperantzen internazionala aktibatzen, utopia lurreratuak, lurrez zikinduak, errizomatikoak landu beharko ditugu, egunerokotik. Ursula K. Le Guin erreferenteak zioen bezala, "gure sustraiak ilunpean daudelako, elikatzen gaituen lurrean". ●

EKAINAK 7 / 18:00, Kultur Etxe Zaharrea: **Esnatu naiz kabareta** antzerkia nerabeentzat.

EKAINAK 19 / 18:00, Emakumeon Etxean: Zineforuma eta solasaldia: **80 egunean**.

EKAINAK 21 / 20:00, Erriberan: **Zinegoak 21**. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoaren Jaialdiko film laburrak.

EKAINAK 26 / 10:30-13:30: Gaztelekuko nerabeak **harrotasunez margotzen**.

EKAINAK 27 / 16:00-19:00, Erriberan: **Zarata** erakusketa, LGBTIQ+ kolektiboaren inguruan kontzientzia sortzeko.

EKAINAK 28 / 10:30-13:30: Gaztelekuko nerabeak Joseba Barandiaran plazako zuhaitzak giraldekin **apaintzen**.

EKAINAK 29 / 20:00, Erriberan: **Esnatu naiz** kabareta antzerkia helduentzat.



Astigarragako Udala



Garenaz harro